# ZIZUR NAGUSIKO FESTAK




# KARTEL LEHIAKETA

# 2024

Antolatzailea:

Zizur Nagusiko Udala
Ayuntamiento de Zizur Mayor

KULTURA. Zizur Nagusia
CULTURA. Zizur Mayor

# FIESTAS de ZIZUR MAYOR




# CONCURSO de CARTELES

# 2024

Organiza:

Zizur Nagusiko Udala
Ayuntamiento de Zizur Mayor

KULTURA. Zizur Nagusia
CULTURA. Zizur Mayor

# Zizur Nagusiko Festak

## 2024ko festen kartela aukeratzeko lehiaketaren oinarriak

1.- Lehiaketa honetan 18 urte betetako (kartela emateko egunean beranduenez) pertsona guztiek har dezakete parte. Nahi adina obra aurkez daiteke, baldin eta lanak jatorrizkoak eta argitaragabeak badira. Kanporatu eginen dira edozein modalitatetan argitaraturiko argazkien, kartelen, margolanen, eta abarren plagio -parte batean edo osorik- diren obrak.

2.- Teknika libre izanen da eta kartelaren formatua 70 x 50 cm-koa izanen da, formatu bertikalean, euskarri zurrun batean eta finkagailurik gabe, eta herriko armarria agertu beharko da (deskargatzea: www.zizurmayor.es) eta testu hau eraman:

**Zizur Nagusiko festak / 2024ko irailaren 11tik 15era**

**---------------------**

**Fiestas de Zizur Mayor / Del 11 al 15 de septiembre de 2024**

Obran testua eta armarria jartzeko modua librea izanen da. Testuak irakurtzeko modukoa izan beharko du, eta lerro berean edo desberdinetan joan ahalko da, betiere bi hizkuntzak tamaina eta ikusgarritasun berean adierazten badira. Hizkuntzak hainbat lerrotan banatuta baldin badaude, euskarak goiko aldean joan beharko du. Gainera, *Zizur* hitza behin bakarrik agertzea baimenduko da, betiere herriaren izena argi eta garbi identifikatzen bada. Armarria bertsio ofizialean sar daiteke (koloretan edo monokromoan), edo armarriaren diseinua kartelaren diseinuari egokitu, betiere ezagutzeko eta identifikatzeko modukoa bada. Irudien eta hizkuntzaren erabilera ez-sexista hartuko da kontuan.

3.- Lanak astelehenetik ostiralera aurkeztu beharko dira, 08:30etik 14:30era, eta onartzeko epea 2024ko ekainaren 11ko 14:30ean bukatuko da.

Fakturatuta edo posta arruntaz ere igortzen ahalko dira Udaletxera. Bidalketa gastuak igortzailearen kontura izanen dira. Helbidea: Herritarren Arretarako Bulegoa, Zizur Nagusiko Udala. Erreniega parkea z.g., 31180 Zizur Nagusia

4.- Kartelak sinadurarik gabe eta atzealdean ikusiko den goiburua idatzirik aurkeztu beharko dira. Kartelarekin batera, gutun-azal itxi batean, kartelaren goiburua, kanpoaldean, eta datu hauek, barnealdean, eman beharko dira: lehiakidearen izen-deiturak, helbidea, telefono zenbakia, posta elektronikoko helbidea eta NANaren fotokopia, baita hark sinaturiko aitorpena, zeinetan aurkezturiko obra jatorrizkoa eta argitaragabea dela adieraziko baitu.

5.- Antolatzaileek ez dituzte beren gain hartuko lehiaketara aurkezturiko obrei gertatzen ahal zaizkien akats, kalte edo galtzeak.

6.- Ekainaren 14an, epaimahaiak, Kultur Arloaren arduradun teknikoa eta diseinua, komunikazioa eta arte plastikoen hiru profesionalek osatua, kartel finalistak hautatuko ditu, 4 gehienez ere, Berdintasun Arloko teknikariaren aholkularitzarekin.

Lan horiek Kultur Etxeko patioan egonen dira ikusgai bertako ohiko orduetan eta Udalaren web orrialdean (www.zizurmayor.es/eu/).

7.- **Ekainaren 19tik 26ra** (biak barne) herritarrek parte hartzeko aldia izanen da, zeinetan 16 urtetik gorakoak izanik Zizur Nagusian erroldaturik dauden guztiek beren botoa ematen ahalko baitute, Udalaren web-orriaren bitartez edo aurrez aurre, Udaletxeko Herritarren Arretarako bulegoan, 8:30etik 14:30 bitarte. Aipatu datetan behar bezala dokumentatua eta idatzirik ez dagoen inolako erreklamaziorik ez da onartuko.

8.- Lehiaketa egiten den bitartean ezin izanen da, inoiz ere, jendaurrean jakitera eman kartelaren egilea nor den.

9.- Kartelik bozkatuena izanen da lehiaketako irabazlea.

10.- Sari bakarra finkatu da, 1.100,00 -koa. Kantitate horri PFEZ gisa dagokion atxikipena aplikatuko zaio.

11.- Zizur Nagusiko Udalak kartel sarituaren mota guztietako erreprodukzioak, behar adina, egiten ahalko ditu, libreki erabiltzeko, eta egileak ezin izanen du inolako erreklamaziorik egin.

12.- Zizur Nagusiko Udalak erakusketa publiko bat antolatuko du lehiaketako kartel guztiekin. Kultur Etxean egonen da, irailaren 2tik 15era, ohiko orduetan.

13.- Aurreko oinarrian aipaturiko erakusketa bukatu ondoren, lehiakideek hilabetea izanen dute beren kartelak eramateko, saritua izan ezik, aurrerantzean udal jabetzakoa izanen baita.

Epe horretan eramaten ez badituzte, uko egiten dietela ulertuko da eta egileek erreklamatzeko edo kalte-ordaina jasotzeko eskubide oro galduko dute. Kartelak igortzeko eta itzultzeko gastuak lehiakideen kontura izanen dira.

14.- Lehiaketan parte hartzen duten pertsonek oinarri hauek osorik onartzen dituztela jotzen da. Zizur Nagusiko Udalak ahalmena izango du oinarri hauetan aurreikusi gabeko edozein alderdi ebazteko.

Zizur Nagusia, 2024ko apirilean

**DATUEN BABESA**

-**Tratamenduaren arduraduna:** Zizur Nagusiko Udala.
-**Helburua:** Zizur Nagusiko festen kartela aukeratzeko lehiaketaren izen-emateak kudeatzea.
-**Eskubideak:** Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea du, baita beste eskubide batzuk ere, informazio gehigarrian azaltzen den bezala.
-**Informazio gehiago:** Udal web orriko pribatasun-abisuan datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza kontsulta dezakezu, http://www.zizurmayor.es/eu/

Lege Gordailua: 413-2014

# Fiestas de Zizur Mayor

## Bases del concurso para la elección del cartel de fiestas 2024

1.- Este concurso está abierto a todas las personas mayores de 18 años (cumplidos a la fecha de entrega del cartel). Se pueden presentar cuantas obras se desee bajo la condición de que sean trabajos originales e inéditos. Serán descalificadas las obras que, en parte o en todo, supongan plagio de fotografías, carteles, pinturas, etc. publicadas en cualquiera de las modalidades.

2.- La técnica será libre y el formato del cartel será de 70 x 50 cm., en formato vertical, sobre un soporte rígido y sin anclajes, y deberá mostrar el escudo de la localidad (descarga en www.zizurmayor.es) y el siguiente texto:

**Zizur Nagusiko festak / 2024ko irailaren 11tik 15era**

**---------------------**

**Fiestas de Zizur Mayor / Del 11 al 15 de septiembre de 2024**

La disposición de texto y escudo en la obra será libre. El texto deberá ser legible y podrá ir en la misma o en líneas diferentes, siempre que se representen en el mismo tamaño y visibilidad ambos idiomas. En el caso de que los idiomas estén distribuidos en varias lineas, el euskera deberá ir en la parte superior. Además, se permitirá que la palabra *Zizur* aparezca una única vez, siempre y cuando se identifique claramente el nombre de la localidad. El escudo puede incluirse en su versión oficial (en color o monocroma) o adaptar el diseño del escudo al diseño del cartel, siempre que sea reconocible e identificable. Se tendrá en cuenta el uso no sexista de imágenes y lenguaje.

3.- Los trabajos se presentarán de lunes a viernes de 8:30 a 14:30, y el plazo de admisión será hasta las 14:30 del 11 de junio de 2024.

También podrán remitirse al Ayuntamiento, facturados o por correo. Los gastos de envío serán a cargo de la persona remitente. Dirección: Oficina de Atención a la Ciudadanía, Ayuntamiento de Zizur Mayor. Parque Erreniega s/n, 31180 Zizur Mayor.

También podrán remitirse a esta dirección, facturados o por correo. Los gastos de envío serán a cargo de la persona remitente.

4.- Los carteles se presentarán sin firma y bajo un lema que aparecerá escrito en la parte trasera del cartel. Junto al cartel deberá entregarse un sobre cerrado en cuyo exterior figurará el lema del cartel y en su interior deberán constar los siguientes datos: Nombre y apellidos, domicilio, teléfono, dirección de correo electrónico y fotocopia del DNI de la persona concursante y una declaración firmada en la que quien concursa indique que la obra presentada es original e inédita.

5.- La organización no se responsabiliza de posibles desperfectos, daños o extravíos que puedan sufrir las obras presentadas al concurso.

6.- El 14 de junio el Jurado, integrado por la responsable técnica del Área de Cultura y tres profesionales del campo del diseño, la comunicación y las artes plásticas, procederá a la selección de un máximo de 4 carteles finalistas, con el asesoramiento de la Técnica del Área de Igualdad.

Estos trabajos permanecerán expuestos en el patio de la Casa de Cultura en su horario habitual y publicados en la web municipal (www.zizurmayor.es).

7.- **Del 19 al 26 de junio** (ambos inclusive) se establece un periodo de participación ciudadana, en el que todas las personas mayores de 16 años y empadronadas en Zizur Mayor podrán emitir su voto a través de la web municipal o de manera presencial en la oficina de atención a la ciudadanía del Ayuntamiento en horario de 8:30 a 14:30. No se admitirá ninguna reclamación que no se haga por escrito y convenientemente documentada en dichas fechas.

8.- La autoría del cartel no podrá hacerse pública en ningún momento del proceso del concurso.

9.- El cartel más votado será el ganador del concurso.

10.- Se establece un único premio dotado con 1.100,00 . A esta cantidad se le aplicará la retención que proceda en concepto de IRPF.

11.- Del cartel premiado, el Ayuntamiento de Zizur Mayor podrá efectuar cuantas reproducciones de todo tipo precise, para su libre uso, sin que su autor o autora pueda hacer reclamación alguna.

12.- El Ayuntamiento de Zizur Mayor organizará una exposición pública con todos los carteles concursantes en la Casa de Cultura, del 2 al 15 de septiembre, en el horario habitual.

13.- Una vez finalizada la exposición indicada en la base anterior, quienes concursen dispondrán de un mes para retirar sus carteles, excepto el premiado, que pasará a ser propiedad municipal.

Si no son retirados en dicho plazo, se entenderá que se renuncia a ellos perdiendo todo el derecho de reclamación o indemnización. Los gastos de envío y devolución de carteles serán a cuenta de las personas concursantes.

14.- Las personas que concursen aceptan en su integridad las presentes bases. El Ayuntamiento de Zizur Mayor queda facultado para resolver cualquier aspecto no previsto en ellas.

Zizur Mayor, abril 2024

**PROTECCIÓN DE DATOS**

-**Responsable de tratamiento:** Ayuntamiento de Zizur Mayor.
-**Finalidad:** Realizar la gestión de las inscripciones al concurso para la elección del cartel de fiestas de Zizur Mayor.
-**Derechos:** Tiene derecho a Acceder, rectificar, suprimir los datos, así como otros derechos tal y como se explica en la información adicional.
-**Información adicional:** puedes consultar la información adicional y detallada sobre Protección de datos en el aviso de privacidad de la página web municipal http://www.zizurmayor.es/

Depósito Legal: 413-2014